**Burlatako Udala**
**Ayuntamiento de Burlada**

Plaza De Las Eras, s/n / Larrañetako Plaza, z/g
31600 Burlada (Navarra) / Burlata (Nafarroa)
Tfno: 948 23 84 00 / Fax: 948 24 48 48
www.burlada.es / www.burlata.eus
CIF / IFZ P3126600J

| | |
|---|---|
| Urtero, otsailaren 19an, Kirolean LGBTIfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen da. Egun horretan jaio zen Justin Fashnau britainiarra, bere homosexualitatea ezagutzera eman zuen lehen futbolari profesionala. 1998an bere buruaz beste egin zuen, 37 urterekin, hainbat urtez presioaren eta homofobiaren aurka borrokatu ondoren. Josh Cavallo futbolari australiarra bere homosexualitatea publiko egiten zuen jarduneko lehen futbolaria izan zen 2021eko urrian. Mundu mailan titular izan zen, Pau Gasol, Antoine Griezmann edo Rubén García bezalako kirolari ezagunen babesa jaso zuen, baina bere askatasuna sare sozialetan zein estadioetan ere gogor zigortu zen. | Cada año, el 19 de febrero se conmemora el Día Internacional contra la LGBTIfobia en el Deporte. Este día nacía el británico Justin Fashnau, primer futbolista profesional en hacer pública su homosexualidad, que acabó suicidándose en 1998, con 37 años de edad, tras varios años luchando contra la presión y la homofobia. El futbolista australiano Josh Cavallo se convertía en octubre de 2021 en el primer futbolista en activo que hacía pública su homosexualidad. Protagonizó titulares a nivel mundial, recibió apoyo de reconocidos deportistas como Pau Gasol, Antoine Griezmann o Rubén García, sin embargo, su ejercicio de libertad también fue duramente castigado tanto en las redes sociales como en los estadios. |
| Pertsona askorentzat LGTBI+ lotsa, estigmatizazioa eta LGTBIfobiaren ondoriozko diskriminazioa beren errealitatearen parte dira bizitzan eta kirolean. Barne Ministerioaren gorroto-delituen txostenak dioenez, Estatuan salatutako delitu horien intzidenteen ia % 20k LGTBIfobia dute kausa, eta gorroto-delituen intzidente gehien salatzen diren laugarren gunea kirol-instalazioak eta joko-zelaiak dira. Eraso fisikoak, mehatxuak eta irainak sareetan, irainak harmailetan eta jokalekuetan, txisteak komunikabideetan eta sare sozialetan, barreak aldageletan eta kirol-instalazioetan, eta gainerakoen isiltasuna direla eta, LGTBI+ pertsona askok ez dute lekurik kirolean. Horrela, LGTBI+ pertsona askok kirolaren munduko parte ez izatea erabakitzen dute, edo bizi egiten dute, direnak izateko beldurrez. | Para muchas personas LGTBI+ la vergüenza, la estigmatización y la discriminación producto de la LGTBIfobia siguen formando parte de su realidad en la vida y en el deporte. El informe de delitos de odio del Ministerio del Interior señala que casi el 20% de los incidentes de estos delitos denunciados en el Estado tienen la LGTBIfobia como causa, y el cuarto espacio en el que más incidentes de delitos de odio se denuncian son las instalaciones deportivas y los campos de juego. Agresiones físicas, amenazas e injurias en las redes, insultos en las gradas y en los terrenos de juego, chistes en medios de comunicación y redes sociales, risas en los vestuarios y en las instalaciones deportivas y el silencio de las demás hacen que, a muchas personas LGTBI+, el deporte les parezca un espacio hostil en el que no tienen cabida. Así, muchas personas LGTBI+, deciden no ser parte del mundo del deporte o lo habitan con temor a ser quienes son. |
| Kirolean LGTBIfobiagatik gehien ikusten diren salaketa-kasuak futbolean eta gizonen aldetik gertatzen diren arren, akatsa litzateke salatutakoa gizonen eta futbolaren bizipen esklusiboa dela pentsatzea. Indarkeria | Aunque los casos de denuncia por LGTBIfobia más visibles en el deporte son en el fútbol y por parte de hombres, sería un error pensar que lo que se denuncia es una vivencia exclusiva de los hombres y del |

Burlatako Udala
Ayuntamiento de Burlada

Plaza De Las Eras, s/n / Larrañetako Plaza, z/g
31600 Burlada (Navarra) / Burlata (Nafarroa)
Tfno: 948 23 84 00 / Fax: 948 24 48 48
www.burlada.es / www.burlata.eus
CIF / IFZ P3126600J

| | |
|---|---|
| LGTBIfobikoa zeharkakoa da kirol, genero eta sexu-identitate guztietan, eta emakumeek ere indarkeria mota bat jasaten dute. Horrek, kirolaren eta gizartearen esparruan LGTBI+ kolektiboaren ikusgarritasunean aurrerapen nabarmenak izan arren, oro har, oraindik bide luzea dagoela egiteko ikusarazten digu. | fútbol. La violencia LGTBIfóbica es transversal a todo deporte, género e identidad sexual y las mujeres también sufren un tipo de violencia que, a pesar de los notables avances en la visibilidad del colectivo LGTBI+ en el ámbito del deporte y social, en términos generales nos hace ver que todavía queda mucho camino por recorrer. |
| Ildo horretan, Burlatako Udalak konpromiso hauek adierazi nahi ditu:<br><br>1.- Kirola eraldaketa-palanka gisa hartzea, genero-agindu zurrunak zalantzan jartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna desagerrarazteko balia daitezkeen ahalmen handiak dituena. | En este sentido, el Ayuntamiento de Burlada expresa los siguientes compromisos:<br><br>1.- Considerar el deporte como una palanca de transformación que tiene grandes potencialidades que pueden ser aprovechadas para avanzar en el cuestionamiento de los mandatos rígidos de género y en erradicar la desigualdad entre hombres y mujeres. |
| 2.- Giza eskubideak, kirolean askatasuna eta aniztasuna errespetatzeko printzipioak eta, beraz, LGTBI+ pertsonen diskriminazioaren aurkako borroka defendatzea, eskubide horiek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean aitortutako baldintzetan bermatzea eragotziz, eta LGTBI+ pertsonen ikusgarritasuna sustatuz tokiko kirolaren eremuan, estereotipoei, diskriminazioari eta LGTBI+ pertsonak Burlatako kirol-jardueratik aldentzen dituzten oztopoei aurre egiteko. | 2.- Defender los derechos humanos, los principios de respeto a la libertad y diversidad en el deporte y, por tanto, la lucha contra la discriminación de las personas LGTBI+ que impida la garantía de dichos derechos en los términos reconocidos en la Declaración Universal de Derechos Humanos, fomentado la visibilidad de las personas LGTBI+ en el ámbito del deporte local con el objetivo de combatir los estereotipos, la discriminación y las barreras que disuaden a las personas LGTBI+ de la práctica deportiva en Burlada. |
| 3.- Aniztasun afektibo-sexuala eta genero-aniztasuna elementu sozial aberasgarri eta positibotzat hartzea, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioekin batera. | 3.- Reconocer la diversidad afectivo-sexual y de género como un elemento social enriquecedor y positivo, acompañado por los principios de igualdad de trato y no discriminación. |
| 4.- Kirolean LGTBIfobikoak, matxistak, xenofoboak eta serofoboak diren jarrerak salatzea eta gizartean zigortzea, batez ere udaleko kirol-espazioetan, joko-zelaietan, harmailetan eta sare sozialetan gertatzen den hitzezko indarkeriari dagokionez, edozein arrazoirengatik, eta, bereziki, sexu- | 4.- Denunciar y penalizar socialmente los comportamientos LGTBIfóbicos, machistas, xenófobos y serófobos en el deporte, particularmente en lo relativo a la violencia verbal o física en los espacios deportivos municipales, campos de juego, gradas y redes sociales por cualquier causa y, |

Plaza De Las Eras, s/n / Larrañetako Plaza, z/g
31600 Burlada (Navarra) / Burlata (Nafarroa)
Tfno: 948 23 84 00 / Fax: 948 24 48 48
www.burlada.es / www.burlata.eus
CIF / IFZ P3126600J

| | |
|---|---|
| orientazioan eta pertsonen genero-identitatean edo -adierazpenean jatorria duten indarkeriei dagokienez. | especialmente, aquellas violencias que tengan su origen en la orientación sexual y en la identidad o expresión de género de las personas. |
| 5.- Burlatako kirol-klubak gonbidatzea adierazpen hau sinatzera eta LGTBIfobiaren txartel gorria kanpainarekin bat egitera, kanpainako pankarta erakutsiz otsailaren 19aren aurreko asteburuko partidu edo lehiaketen aurretik. | 5.- Invitar a los clubes deportivos de Burlada a firmar esta declaración y a unirse a la campaña “Tarjeta roja a la LGTBIfobia”, mostrando la pancarta de la campaña antes de los partidos o competiciones del fin de semana inmediatamente anterior al 19 de febrero. |